

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko martxoaren 13a. IX. urtea. 2.376. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Merkataritza dinamizatzeko, Tolosan hutsik dauden lokalak erabilgarri

Udalak bost lokal hartuko ditu alokairuan; Eusko Jaurlaritzaren eta Tolosa & Co-ren laguntzarekin jarri du abian egitasmoa **02**



Moleon, Van Zyl eta Aristi, Insalus probaren podiumean. E. MAIZ

## Van Zylek erraz irabazi du Lizartzako 24. Insalus Saria

Caja Ruraleko txirrindularia bakarrik iritsi da helmugara; bere atzetik, Victor Manuel Moleon eta Mikel Aristi sailkatu dira **07**



KARLOS

→ **Salas, garaile Aiztondo Klasikoan.** Caja Rural taldeko Ibai Salas-ek irabazi du Aiztondo Klasikoa, Larraulgo helmugara sei segundoko tartera aterata Mike Terpstrari. Aurtengo proba berezia izan da, Patxi Alkortaren Oroimenezkoa izendatu baitute. Hainbat urtetan antolatzaile lanetan aritu zen Alkortari omenaldia egin diote bai lasterketaren hasieran, baita proba amaitu ondorengo bazkarian ere. **07**

## Gaztañaga eta Muñoz duatloilariak txapeldun, Gipuzkoakoan

Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko bi kideak, maila nagusian eta 23 urte azpikoan garaile **06**

## 50 partaide aritu dira lehenengo Tolosako Biketrial proban

Antolatzaileak oso gustura daude trialsina sustatzeko egin duten ekimenak izan duen erantzunarekin **06**

## Lehen puntua galdu arren, Leitzaundi finalerako sailkatu daiteke

Leitzako taldeak ez du irabazi Bardoak 2012 bertso txapelketaren Iturengo finalaurreko saioa **03**

## Manu Azkarate tolosarra atxilotu izana salatu dute

Gernikako akordioaren sinatzaileek Azkarate «mendeku politiken protagonista» izaten ari dela diote; elkarretaratzea deitu dute gaurko **03**

## Hegal egiten...



### Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

**G**izakiok beti hegan egin nahi izan dugu, zuetako hegan dabilela? Hegan egitea izango da askatasunaren sinonimorik egokiena. Baina zoritxarrez zu eta ni Lur planeta maite honi itsatsita gaude, ez daukagu hegalik eta beraz, hegan egitea beste bizidun hegalariei utzi beharko diegu oraingoz.

Bizidun hegalaria esaten dudanean ziur zuen burura txorien irudia datorrela, baina badira hegan egitea lehen mailara eramanean duten beste bizidun batzuk, eta ez dira hegaztiak. Oso txikiak dira, sei hanka eta lau hegal dituzte. Bizidun hauek intsektuak dira eta hegaztiekin beren lehen lumak garatzen hasi aurretik, zomorro hauek jada nagusi ziren hegan egitearen artean.

Izan ere, hegan egiteak bizidunei abantaila handiak ematen dizkie: distantzia handietan mugitu daitezke beraien bizilekua eta elikatzeo aukerak handituz; harrapari lurtarretatik ihes egin dezakete; oztopo naturalak, adibidez mendiak, gainetik pasa ditzakete... Beraz, ez da harritzekoa bizidun orok hegan egin nahi izatea!

Bizidunen historian hegan egiteko saiakera ugari izan dira; intsektuez gain, narrastiek, hegaztiekin, ugaztunek eta zenbait arrainek ere hegan egin dute. Baina, narrasti hegalaria, dinosauroak, aspaldi desagertu ziren. Ugaztun hegalaria talde bat dugu soilik gaur egun, saguzarrek, eta arrain hegalaria talde bat baden arren, hegalariai baino gehiago, planeatzaileak dira, uraren gainetik salto egin eta aldi batez airean mugitzen direla. Beraz, saiakera ugariaren ostean,

hegazti eta intsektuek soilik lortu dute hegalaria hobereen titulua. Zergatik ote?

Hegan egiteko nahita nahiezkoa da hegalak izatea. Oso handiak dira, airea azpian hartu, astindu eta biziduna lurretik altxatzeko. Hegalen lana errazteko, komeni da biziduna arina eta txikia izatea, hegalak zabalak edukitzea eta bularrean oso muskulu indartsuak izatea. Hau guztia izanda ere, kontuan izan hegan egiteak kostu energetiko handia eskatzen duela, eta bizidunek ez dute inoiz ezer alferrik galtzen. Ekonomialeariek bizidunengandik ikasiko balute, agian ez lukete horrenbeste diru alferrik galduko.

Imajina dezagun bi metroko arrano beltza: hegal erraldoiak ditu, muskulu indartsuak bularrean, baina tamaina oso handia du, hegan egiteko arazoak! Baina arrano beltzak tamaina handia duen arren, ez du horrenbesteko pisua, izan ere, hezurren barnean airea gordetzen du, autoaren gurrupilak bezala, eta honela bere pisua arindu egiten du.

Hau da hegaztien hegaldiaren sekretua, handiak izatea ahalbidetzen die, pisu arina edukiz. Honi gehitu behar zaio, aire korronteak sentitu eta erabiltzeko gai direla, hegalei gutxiago eraginez energia ugari aurrezten dute.

Intsektuak txikiak direnez, hegan egitea ez zaie hegaztiei bezain garesti ateratzen. Gainera, hegan egiteko modu eta estilo ugari garatu dituzte, lauzpabost zutabe beharko nituzke guztiak azaltzeko!

Ikusten duzuen bezala, hegan egitea bizidunen ametsa izan da betidanik, amets hau egia bihurtzea oso gutxi lortu duten arren. Eta ametsak beharrezkoak dira errealitateari aurre egiteko, eta zuen posta elektronikoak ere beharrezkoak dira gaiak proposatu eta animoak altxatzeko, beraz, ez dudarik izan [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com) era idazteko, [Facebook](https://www.facebook.com/bioaniztasunetik)-a bisitatzeko eta [www.bioaniztasunetik.com](http://www.bioaniztasunetik.com)-en iritziak idazteko. Astindu zuen irudimenaren hegoak eta egin hegan lasai!

## Merkataritza dinamizatzeko bost lokal huts alokairuan hartuko ditu udalak

Eusko Jaurlaritzarekin eta Tolosa & Co elkartearekin elkarlanean sortutako egitasmoa da

Itzea Urkizu Tolosa

Merkataritza jarduerarik gabeko eremuak ideia berrien bidez dinamizatzeko helburuz, *Tolosa Merkat 2012: Ekarri negozioa, tori lokala* egitasmoa aurkeztu du Tolosako Udalak. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Maite Valmaseda, eta Tolosa & Co elkartearen Fermin Montilla eta Juanjo Ruiz ere izan dira agerraldian, hiru eragileen arteko elkarlanetik sortu baita egitasmoa.

Merkataritza dentsitate baxuko guneetan, hutsik dauden saltokiak udalari errentan ematea da proiektuaren muina. Horretarako, Tolosako Udalak eta lokalak jabeek alokairu kontratua sinatuko dute. Bide honetan, merkataritza negozio bat abian jarri nahi duten ekintzaileei, nahiz bestelako proiektuak abiarazi nahi dituztenei lagundu ahal izango die udalak, alokairuan hartutako lokal hauekin. Era berean, gaur egun merkataritza jarduera gutxi duten guneak biziberritzeko tresna izango da.

Ibai Iriarte alkateak, «ilusioz beteriko proiektua» dela nabarmendu du: «Tolosa bizi bat landu nahi dugu, merkataritza bizi batenekin». Tolosako merkataritzaren datuak «oso onak» direla gogora ekarri duen arren, hobetzen jarraitu behar dela azpimarratu du Iriartek, «merkataritza dentsitate baxuagoko guneak biziberritzeko».



Egitasmoan parte hartu duten eragileetako ordezkariak agerraldian. I. URKIZU

Eusko Jaurlaritzako Maite Valmasedak udalarekin sinatu duten hitzarmen publiko-privatua azpimarratu du, honi esker iritsi baitira proiektua gauzatzera. Gainera, egitasmoa «erabat bertizalea» dela nabarmendu du: «Tolosa punta-puntan dago, eta azken urteotan erreferentzia da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan». Bide beretik, Tolosako merkatariek azken urteotan eginen ari diren lana «oso ona» dela azaldu du.

Egitasmo honen helburuak, honako guneak suspertzera begira zehaztu dituzte: Gernikako Arbola, Euskal Herria plaza, Kale Nagusia eta Agintariakalea, besteak beste. Ibai Iriartek azaldu duenez, jende gutxi guneak dira, baina lokal asko daude bertan, eta Tolosa & Co elkarteak egindako ikerketa baten laguntzaz, egitasmo honen ideia sortu zen.

Hasier De los Rios zinegotziak egitasmoaren zehaztasunak azaldu ditu. *Tolosa Merkat* egitasmoak bi fase izango ditu. Hasteko, lokalak berriro ireki beharko dituzte. Horretarako, udalak eta jabeek aurretik adostutako errenta kontratua sinatuko dute bost urterako; beste bost urte lutzeko aukera izango da. Erabe-

rritze lanak udalak egingo ditu, eta errenta hau merkatu pribatuaren azpitik egongo da.

Errentaren zenbatekoa kalkulatzeko, udalak bi faktore izan ditu kontuan: hasteko, lokalak dituen metro karratuak aintzat hartuko dituzte, eta bestalde, udalak eraberritze lanetan erabili beharko duen diru kopurua ere kontuan hartuko dute. Alokairu kontratuak arautzen dituen Baldintza Plegua onartu du jada udalak, eta datozen egunotan argitaratuko dute. Lokalen jabeek, hamabost egun izango dituzte eskaerak egiteko.

### Hamabost eguneko epea

*Tolosa Merkat* programaren kostu osoa 392.489 eurokoa izango da. Eusko Jaurlaritzak 264.262 euroko diru laguntza eskaini du, eta udalak, berriz, 120.227 euro bideratu ditu egitasmoa.

Proiektuan parte hartu nahi dutenek, 943 65 44 66 edo 943 69 75 00 telefono zenbakietara dei dezakete datozen bi asteotan, eta baita [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) webgunean sartu ere. Bertan dauden inprimakiak bete eta udaletxean aurkeztu beharko dituzte.

## Irudia ◊ Ingurumena



## ANGULAK ASKATU DITUZTE ORIAN

Pasa den ostiralean, bi kilo angula askatu zituzten Ataunen. European aingiren populazioak beharrekada nabarmena izan duela eta, hainbat plan martxan jarri dituzte espeziea mantentzeko. Kasu honetan, Oria ibaiaren arroan birpopulaketa formula desberdinak ikertzea da helburu nagusia, epe luzerako birsartze programa egokiena diseinatzeko; hiru formula jarri dituzte abian. E. IMAZ/GOERRIKOHITZA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Azkarate «mendeku politiken protagonista» dela salatu dute

Gernikako akordioaren sinatzaileek agerraldia egin eta elkarretaratzea deitu dute, gaurko, Tolosako Trianguloan

**Eneritz Maiz** Tolosa

Ziburun asteazkenean izan zen Manu Azkarate tolosarraren atxilotetaren harira, Gernikako akordioa sinatu zuten taldeak egoera hori salatzen elkartu dira. Atxiloteta gehiagorik ez egiteko esan dute: «Manu Azkarate, preso ohia, gaixotasun larria duena, mendeku politiken protagonista dugu egun. Herri honetan ez dugu horrelakorik onartzen, eta bi estatuei iraganeko erreze-tak utzi eta zabaldu den egoera berriari arduratsu erantzutea exijitzen diegu».

Bilgune Feminista, Esait, EHNE, LAB, Aralar, Eusko Alkartasuna eta ezker abertzalea, Manu Azkarateren lagun, senide



Tolosako Zerkausiaren gaineko solairuan egin dute agerraldia. E. MAIZ

eta beste eragile batzuekin batera izan dira agerraldian. Euskal Herriari «hamarkada luzeetan pairatu izan den gatazka politikoak» aro berri bati eman diola bidea adierazi dute bertaratutakoek. «Bide honetan, Aieteko bake konferentziak alboratu ezinezko oinarria edo ibilbide orria marraztu du. Gatazkaren ondorioei eta erroei modu egokian eta demo-

kratikoan erantzun ahal izateko, ibilbide orri honek, herri honen gehiengoaren babesa berekin du», nabarmendu dute.

Aieteko ondorioei erantzun gabe, «Estatu espainiarreko eta Frantziako gobernuek ezin dute denbora gehiago irau», gaineratu dute. «Salbuespeneko legedi zein jokabideekin jarraitu ezin duten bezala», diote.

Manu Azkarate tolosarrak gaur, Pauen, epailearen aurrean izan behar duela ekarri dute gogora agerraldian. Euroagindu eskaeraren aurrean gerta daitekeena salatu dute, eta elkartasuna adierazi asmoz, mobilizaziora deitu dute. Gaur, 20:00etan, Tolosako Trianguloa plazan elkartuko dira, *Konponbide garaia da. Manu etxera* lelopean.

## → Laburrak

### Nafarroako Erresumari buruzko hitzaldia, gaur

**VILLABONA** ▶ Aritza kultur elkarteak antolatuta, eta Villabonako Udalak babestuta, gaur Nafarroako Erresumari buruzko hitzaldia izango da Mintzolan, 19:30ean. Beñi Agirre izango da hizlaria eta 778-824 Nafarroako Erresumaren sorrera solasaldiaren izena.

### Alpino Uzturreren mendi irteera, hilaren 18an

**TOLOSA** ▶ Alpino Uzturre elkarteak hilaren 18rako mendi irteera antolatu du. Txangoa Durruma-Altsasu izango da. Ballo (1.197 m.), Legunbe (1.129 m.) eta Bargagain (1.154 m.) mendiak igoko dituzte. Autobusa San Frantziskotik 08:00etan aterako da. Iraupena 7 ordukoa da, eta luzera 23 kilometro. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta ez bazkideek 13 euro. Izena emateko interes duenak 943 65 27 89 telefono zenbakira deitu edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidera idatzi behar du.

### Mendiko eskia buruzko ikastaroa, Oargirekin

**TOLOSA** ▶ Mendiko eskia buruzko ikastaroa antolatu du Oargi mendi elkarteak hilaren 16, 17 eta 18rako. Maila guztientzako jendearentzat izango da, eta jendearen maila eta kopuruaren arabera taldeak osatuko dira. Astun eski estazioaren inguruan izango da, eta oinarriko teknika, salbamendu teknika eta abar erakutsiko dira. Teoria lantzeko materiala ere banatuko da. Komeni da mendiko eskia edukitzea, bestela bertan alokatu beharko dira. Izen ematea kopuruz mugatuko da. Bestalde, federatua egotea beharrezkoa da. Izena emateko deitu 688 69 86 42 zenbakira edo idatzi [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera.

# Finalerako aukera du oraindik Leitzaldundik

Finalurrekoaren lehen puntua galdu du Leitzaldundik Iturengo Erauntsiko bertsolariaren aurka

**I. Garcia Landa** Leitzaldu

Bardoak 2012 bertso txapelketako finalurreko lehen saioa egin dute Leitzaldundi taldekoek Iturenen, bertako Erauntsi taldearen aurka. Saio «oso parekatua» izan dela esan du Inigo Sagastibeltza Leitzaldundi taldeko bertsolariak, baina azkenean Erauntsiko taldeak eraman zuen lehen puntua.



Leitzaldundi eta Erauntsi taldeen arteko saioaren une bat. HITZA

Asteburu honetan, itzulikoa jokatzen da Leitzaldundi, Aurrera elkartearen. Bertso saioa larunbatean, hilak 17, izango da, 18:00etan. Sa-

gastibeltzak finalera pasatzeko aukerak daudela dio: «Iturenen epaileen artean berdinketa izan zen emaitza ematerakoan, eta pu-

blikoaren bozka erabaki zuen irabazlea. Ez badugu akatsik egiten, aukerak baditugu finalera pasatzeko». Hain justu, finala Leitzaldundi bertan izango da, hilaren 31n.

Migel Mari Eloseggi *Luze*, Inigo Sagastibeltza eta Inigo Ibarra bertsolariak parte hartzen dute Leitzaldundi taldean. Sagastibeltzaren iritziz, asteburuko saioaren puntua ez ziren ondo aritu: «Azkarregi aritu ginen, abestu nahi genuena ezin sartuz». Beste ataletan ez zutela arazorik izan esan du. Orain, larunbaterako agurra prestatu behar dute, eta ea «zorte pixka bat» izaten duten, finalerako txartela eskuratzeko.

## ◉ Hilberriak

## ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

## JOXE MARI GURRUTXAGA

(“Guru”)

*Ez adiorik, beti gurekin izango zaitugu*

**Orratz! Antzerki Taldea**

Lezon, 2012ko martxoaren 13an



**Tolosa** ◊



**HIRUKIDEREN BERTSO AFARIA**

Hiru kidek urtero antolatzen duen bertso afaria izan zen ostrialan. Aliz-Orratz elkartean. Elkarrizketa bildi fako irakatsle, guraso eta ikasleak Batzordeko kideekin gozamenarako, Angel Mari Peñagarikano, Bivente Gorostidi eta Unai Muñoz bertsoariak aritu ziren bertsoetan. www.azk.com

**Tolosa** ◊



**HODEI TRUK KONZERTUAN**

Zorroaga fundazioak antolatuta, Hodei Truk abesbatzak kontzertu arrakastatsua eskaini zuen, igandean. Kontzertu honetan, Hodei Truk abesbatzaren 25 urteurrenaren ospakizunak hasi dituzte. Hodei Truk Hirukide, Hodei Truk eta Hodei taldeek parte hartu zuten kontzertuan. Asteburu honetan saioa izango dute. www.azk.com

**Tolosa** ◊



**BIGEN ENKANTEA IZAN DA**

Frisoi, pirenako, limusin eta blonda arrazako bigak enkantean jarri zituzten, Tolosan. Ferialekuan elkartu ziren guztiak, eta diru laguntza izan dira erositzaileak; alde batek, emai dauden frisoentzat, eta bestetik, zortzi hilabetez gorako pirenako, limusin eta blondentzat. Lau arrazako elkarteek antolatuta zuten enkantea, Tolosa Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntzarekin. www.azk.com



**Tolosako etxe adosatuak** eguzkitua, lau gela, bi bainugela, komunak, egongela-angela handia, sukaldaria, bi autoentzako garajoa, teilatua, jardina eta trasterikua.

**www.azk.com, 0411**  
**578 207657**  
**tolosaldeko hitza**

**Tolosa** ◊



**BARAZKIEKIN PRESTATUTAKO BERDELA**

Marban jarrri dute berriro ere Tolosako Azokan 4 Kilometro 0 ekimena. Zerkausiko azokan garajiko produktuak erosi zituzten, eta mokadutxo bat prestatu zuten herritarren artean banatzeko. Fronton jaietako Roberto Ruiz izan zen sukaldaria, eta berdelela barazkiekin prestatu zuen. Getariako Arantzaleen Kofradia izan zuten lagun, eta

40 kilo berdel prestatu zituzten eslaberabe eran. Herritarrek nola prestatzen zuten ikusteko aukera izan zuten, eta ondoren, nola ez, gerturatu zirenek dastatzeko aukera izan zuten. 2009. urteetik martxoan diagoen ekimena da hau, eta Tolosan lanburuaren egiten den azoka indartzea du xede Kilometro 0-k. www.azk.com

**Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna** ◊



**ALDARRIKAPENERAKO EGUNAK IZAN DITUZTE**

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren baiman hainbat ekitaldi izan dira eskualdean. Eguna ostegunetan izango da, asteburura ere luzatu dira ekitaldiak. Antzerkiak, bazkari edo afariak, hitzaldiak, ikastaroak,

egun pasak... izan dira eskualdeko herrietan. Leaburun eta Gaztelun afaria egin zuten, eta Ametzetako jubiak, berri, merienda izan zuten. Tolosan, elkarretaratzeko gain, murala pintatu zuten. Era berean, Aurrez Au-

re ekimena inauragatu zuten, ostrialan. Apirilaren 14a bitartean, Aranburu Jauregian emakume artistek egingo lanak ikusgai egongo dira, eta asteburuero hainbat ekitaldi izango dira. www.azk.com

**Tolosa** ◊



**GREBARAKO GIROTZEN**

LAB sindikatuek informazioa hainbat panel jarri zituen lanur batean, Trianguloa plazan. Krisi egararen berri emateaz gain, hilaren 29ko greba orokorra girtzeko baliatu zituzten panelak. Trianguloa plazatik pasa zen jende askok egin zuen geldialdia panelak irakurtzeko. Martxoaren 29an, greba egiteko arrazoiak zeintzuk diren argitu zituzten. www.azk.com

**Zizurkil** ◊



**HERRIRAREN BERRI**

Zizurkilen Herrira mugimendua aurkitu zuten lanur batean. Euskal preso eta helduaren alde lan egingo duen herri mugimendua izango da, eta Zizurkilen ere ekimen berri eman zuten. Helburuak eta zergatiak azaltzeko gain, herria begira egingo duten lanur berri eman zuten. Iku ezinezko bideak tartekatuz, Herrira mugimendua ezagutu zuten zizurkilarekin. www.azk.com

**Zizurkil** ◊



**'POTXOLO'-RI TXAPELA**

Zizurkilik Kamilasundiko Migel Mari Zurutuza Potxolo-ri egin zion omenaldia XIX. Txapela Egunean. Elkarte bate jende elkartu zen afarian, eta Potxolo 2012ko txapeliduna izendatu zuten. Iazko txapelidunak, hau da, Iruña baserriko Lusmes Mujikak jarrizko txapela Potxolo-ri Urteko txapelidunak, Potxolo-k, Ama Birjin jaietako hasierako emango dien zurria botatzeko ohorea izango du. www.azk.com

## Kirolak &gt;

## ↓ Kirol emaitzak

## PILOTA

|                             |    |
|-----------------------------|----|
| <b>LEHEN MAILAKO</b>        |    |
| <b>BINAKAKO TXAPELKETA</b>  |    |
| Retegi II-Pascual           | 4  |
| Irujo-Barriola              | 22 |
| <b>Bengoetxea VI-Apraiz</b> | 12 |
| Olaizola II-Beroiz          | 22 |

## Sailkapena

|                         |      |
|-------------------------|------|
| 1. Olaizola II-Beroiz   | 12-0 |
| 2. Titin III-Merino     | 7-5  |
| 3. Irujo-Barriola       | 6-6  |
| 4. Berasaluze-Albisu    | 6-5  |
| 5. Xala-Laskurain       | 6-6  |
| 6. Bengoetxea VI-Apraiz | 6-6  |

## Hurrengo partida

Mrtnez Irujo-Barriola  
Bengoetxea VI-Apraiz

## BIGARREN MAILAKO

|                            |    |
|----------------------------|----|
| <b>BINAKAKO TXAPELKETA</b> |    |
| <b>Jaunarena-Cecilio</b>   | 22 |
| Lemuno-Aretxabaleta        | 7  |
| <b>Olazabal-Larrinaga</b>  | 22 |
| Urrutikoetxea-Otxandorena  | 19 |

## Sailkapena

|                       |     |
|-----------------------|-----|
| 1. Jaunarena-Cecilio  | 8-2 |
| 2. Olazabal-Larrinaga | 8-2 |

## Hurrengo partidak

Lemuno-Aretxabaleta  
Olazabal-Larrinaga  
Jaunarena-Cecilio  
Tainta-Argote

## FUTBOLA

|                             |     |
|-----------------------------|-----|
| <b>ERREGIONAL OHOREZKOA</b> |     |
| <b>25. jardunaldia</b>      |     |
| Aloña Mendi-Tolosa CF       | 3-5 |

## Sailkapena

|                  |     |
|------------------|-----|
| 1. Anaitasuna    | 51p |
| <b>2. Tolosa</b> | 46p |
| 3. Real Union    | 45p |

## Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF-Anaitasuna

## ERREGIONAL PREFERENTEA

|                        |     |
|------------------------|-----|
| <b>23. jardunaldia</b> |     |
| <b>Lehen taldea</b>    |     |
| Tolosa B-Mariño        | 0-2 |

## Sailkapena

|                    |     |
|--------------------|-----|
| 1. Touring         | 56p |
| 2. Ostadar         | 53p |
| <b>3. Tolosa B</b> | 46p |

## Hurrengo jardunaldia

Allerru-Tolosa B

## Bigarren taldea

|                         |     |
|-------------------------|-----|
| <b>Intxurre-Ordizia</b> | 2-2 |
|-------------------------|-----|

## Sailkapena

|                     |     |
|---------------------|-----|
| 1. Zumaiaiko        | 41p |
| 2. Lagun Onak       | 41p |
| 3. Getariako KETA   | 41p |
| <b>16. Intxurre</b> | 13p |

## Hurrengo jardunaldia

Anaitasuna-Intxurre

## TXIRRINDULARITZA

|                            |         |
|----------------------------|---------|
| <b>XXIII INSALUS SARIA</b> |         |
| <b>Sailkapena</b>          |         |
| 1. Johan Abraham Van Zyl   | 2:20:57 |

|                      |       |
|----------------------|-------|
| 2. Victor Moleon     | 45"   |
| 3. Mikel Aristi      | 45"   |
| 4. Victor Etxeberria | 45"   |
| 5. Santiago Ramirez  | 48"   |
| 6. Loic Chetout      | 1:04" |
| 7. Armando Ortega    | 1:05" |
| 8. Niek Van Geffen   | 1:05" |
| 9. Jon Larrinaga     | 1:05" |
| 10. Aitor Gonzalez   | 1:07" |

## Mendiko saria

1. Johan Abraham Van Zyl

## Taldekakoa

|               |
|---------------|
| 1. Caja Rural |
| 2. Lizarte    |

## IX. AIZTONDO KLASIKOA-

## I. PATXI ALKORTAREN OROIMENEZKOA

## Sailkapena

|                        |         |
|------------------------|---------|
| 1. Ibai Salas          | 3:29:33 |
| 2. Mike Terpstra       | 6"      |
| 3. J Ignacio Perez     | 13"     |
| 4. Eduard Prades       | 16"     |
| 5. Fernando Grijalba   | 17"     |
| 6. V. Garcia de Mateos | 18"     |
| 7. Julien Mitxelena    | 18"     |
| 8. Ruben Fernandez     | 18"     |
| 9. Jesus Herrero       | 18"     |
| 10. Miguel Gomez       | 18"     |

## Mendiko saria

1. Joseba del Barrio

## Taldekakoa

|                    |
|--------------------|
| 1. Caja Rural      |
| 2. Bidelan Kirolgi |
| 3. Andalucia       |

## DUATLOIA

## OÑATIKO DUATLOIA

## Sailkapena

|                                  |         |
|----------------------------------|---------|
| 1. Maider Gaztañaga (Mahala TTT) | 2:12:26 |
| 2. Lourdes Oizartabal            | 9:06"   |
| 3. Leire Etxezarreta             | 10:43"  |
| 12. Maialen Muñoz (Mahala TTT)   | 25:07"  |

## TRIALSIN

## TOLOSAKO BIKETRIAL

## TXAPELKETA

## Sailkapena

## Benjaminak

|                      |
|----------------------|
| 1. Josu Perez Martin |
| 2. Igor Bilbao       |
| 3. Haimar Etxeberria |
| <b>Alebinak</b>      |
| 1. Iker Rodriguez    |
| 2. Julien Gomez      |
| 3. Andoni Perez      |

## Infantilak

|                   |
|-------------------|
| 1. Beñat Agirre   |
| 2. Daniel Augusto |
| 3. Gaizka Cuellar |

## Junior/Seniorrak

|                     |
|---------------------|
| 1. Aitor Murua      |
| 2. Sergio Fernandez |
| 3. Unai Zunzunegi   |
| 4. Javier Fernandez |
| 5. J. Menendez      |

## Neskek

|                  |
|------------------|
| 1. Irene Caminos |
| 2. Anabel Asenjo |

## Elite maila

|                     |
|---------------------|
| 1. Ion Areitio      |
| 2. Iker Lezeta      |
| 3. Gorka Susperregi |
| 4. Diego Garcia     |

# Mahala TTT Gipuzkoako bi txapelekin etorri da Oñatiko Duatloi probatik

Maider Gaztañagak maila nagusian lehen postua lortu du, eta Maialen Muñozek 23 urte azpikoan

## Erredakzioa

Euskadiko Duatloi zirkuituko orain arteko proba gogorrena jokatu zen larunbatean: Oñatiko Duatloia. Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeak ordezkaritza zabal eman zuen bertara, eta bi txapelak ekarri zituzten etxera, Maider Gaztañaga eta Maialen Muñoz esker.

Euskadiko zirkuituko proba izateaz gain, Gipuzkoako Txapelketa ere bazen Oñatiko Duatloia. Lehenik, 10 kilometro egin behar izan zituzten korrika, ondoren, bizikletaz 40 eta azkenik berriro korrika aritu ziren lehiakideak, 5 kilometroko distantzian.

Maider Gaztañagak hiru sektoretan partzialik onenak egin zituen, eta bigarrenari bederatz minutuko aldea aterata irabazi zuen proba, eta ondorioz, Gipuzkoako Txapelketa. Erakustaldi ikaragarria eman zuen denboraldiko bere lehen duatloian. Berriki Euskadiko Neguko Triatloi txapelketa irabazi zuen ordizia-



Mahala TTTko Maider Gaztañaga probaren amaieran. HITZA

rrak, eta Espainiakoan ere nabarmen onena izan zen, nahiz eta deskalifikatua izan. Mahala TTT-ko kidea sekulako maila duela erakusten ari da, nahiz eta denboraldiko erronka nagusiak urrutidauden oraindik.

Maialen Muñoz ibartarra ere bikain aritu zen, eta 23 urtez azpikoetan Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen bere estreinako denboraldi honetan. Oñatin 12. sailkatu zen, eta Euskadiko Duatloi zirkuituko sailkapen nagusian hirugarren postuan dago, bost proba jokatu eta gero. Etorbizun handia duela erakusten ari da.

Mutiletan Mahala TTT bedera-

tzigarren sailkatu zen, Gipuzkoako laugarren onena izanik. Oñatin ondorengoak lehiatu ziren: Aitor Regillaga, Ion Artutxa, Igor Aranburu, Ibon Gonzalez, Iñigo Aseginolaza, Gorka Sarasola, Sinoe Sanz, Ion Marin, Edu Gonzalez, Liher Etxeberria, Danel Leunda, Asier Saez eta Alar Sevillano.

Eskualdeko partaiderik onena, Egoitz Zalakain (AtSS) izan zen, bederatzigarren postuan helmugaratu baitzen tolosarra. Proba ona burutu zuen Zalakainek, eta Gipuzkoako Txapelketa podiumera igotzea lortu zuen, hirugarren postuan.

## Lehen trialsin probarekin oso gustura agertu dira antolatzaileak

Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria zen Usabalen jokaturako Tolosa Biketrial proba

## A. Imaz Tolosa

Bizikleta gainean oztopoz beteriko ibilbidean barrena, 50 lagunek gora ibili ziren igandean, Usabal kiroldegiko skate parkearen ondoan. Gipuzkoako Trialsin Txapelketaren proba jokatu zen bertan: Tolosako Biketrialak.

Parte hartzaile eta ikusle kopuruarekin oso gustura agertu dira antolatzaileak. Unai Iraolaren esanetan, «trialsina sustatzeko asmoz antolatu genuen proba Usabalen, eta erantzuna ikusita oso gustura gaude. Gipuzkoako txapelketaren barruan kokaturik zegoen, eta parte hartzaile gehien



Tolosa Biketrial proba Usabal atzealdean jokatu zen igandean. HITZA

izan dituen proba izan dela esan digute. Oso gustura gaude, eta arerrera egiteko gogoz, beti ere, bakarrik ez bagaituzte uzten».

Tolosako udal ordezkariek ere Usabalen izan ziren igandean, eta

ikusleekin batera, ederki pasa zutela aipatu dute antolatzaileak. «Sentsazio onekin eta pozik» zegoela onartu du antolatzaile lane-tan ibili den Unai Iraolak, Tolosa Biketrial taldeko kideak.

# Caja Rural taldeko Ibai Salas gailendu da Patxi Alkortaren Omenezko proban

Mike Terpstra sailkatu da bigarren postuan sei segundora, eta hirugarren, Juan Perez Martin 13 segundora

**Iñigo Terradillos**

Emaitza bikainak lortu ditu Caja Rural taldeak igaro berri den as-teburuan. Larunbatean, Lizartzako Insaluz sarian garaipena eskuratu zuen Johan Abraham Van Zyl hegoafrikarraren eskutik, eta herenegun Ibai Salas bizkaitarra izan zen Aiztondo Klasikoa-Patxi Alkortaren Oroimenezko txirrindulari proban Nafarroako taldeari garaipen berri bat eman ziona. Larraulgo helmugara hiru ordu, 29 minutu eta 33 segundoko denbora eginda iritsi zen Salas. Bere atzetik, Azysa taldeko Mike Terpstra sailkatu zen, 6 segundora, eta hirugarren postuan, Juan Perez Martin sartu zen, 13 segundora.

Lau talde gailendu ziren 140 kilometroko proban: Caja Rural, Bidelan, Azysa-Telco eta Andaluzia. Lehendabiziko ihesaldia Mutua Levante taldeko Riutortena izan zen. Hainbat kilometro barkarka egin ostean, Ryabkin (Lokomotiv), Abasolo (Azysa) eta Del Barrio (Bidelan) batu zitzaizkion. Adrian Lopez (Andaluzia), Mitxelena (Bidelan) eta Terpstra (Azysa) gehitu ziren talde horretara, baina Alkizara igotzerako Riu-

tort eta Ryabkin atzean geratu ziren, eta Salasek eta Gallegok (Andaluzia) taldea harrapatu zuten.

Salas eta Terpstra izan ziren indartsuenak lasterketaren azken txanpan, baina azkenean bizkaitarrak eutsi egin zion, eta sutsuki ospatu zuen helmugaratzea.

Espainiako Koparako puntugarria da Aiztondo Klasikoa-Patxi Alkortaren Oroimenezkoa. Hurrengo proba Madrilen izango da, martxoaren 25ean, eta Valenciagaren Omenezkoa ondoren, apirilaren 1ean.



Lasterketa burua, Ibai Salas gidari dela, herenegungo proban. KARLIS

## Irudia ◉ Zizurkil



## ALKORTARI OMENALDI HUNKIGARRIA

Aurrerantzean Aiztondo Klasikoari Patxi Alkortaren Oroimenezkoa izena emango zaio. Herenegungo irteera ofiziala Orbea taldeko sortzaile izandakoaren etxetik egin zuten. Alargunari lore

sorta eman zion Txomin Perurenak, eta aureskua dantzatu zitzaion. Kirol munduko jende ugari izan zen Alkortaren omenezko ekitaldian, eta ondoren, sagardotegian bazkaria egin zuten. KARLIS

# Van Zyl nagusitasunez garaile, Lizartzan

Hegoafrikar txirrindularia bakarrik iritsi da helmugara; bere atzetik, Moleon eta Aristi sailkatu dira

**Eneritz Maiz** Lizartza

Johan Abraham Van Zyl Caja Rural taldeko txirrindularia izan da Lizartzako 24. Insaluz lasterketa-ko irabazlea. Hegoafrikarra bakarrik helmugaratu zen larunbateko lasterketan, gainontzekoei ihes egitea lortu baitzuen, eta bere atzetik, Lizartze taldeko Victor Manuel Moleon eta Debabarrena taldeko Mikel Aristi sailkatu ziren.

Lehen postuaz gain, Van Zylek mendiko saria ere eskuratu zuen. Lasterketa polita izan zen, erasoz beterikoa. Irabazleak, ordea, ez zuten aurkaririk izan, eta erakus-



Van Zyl, Lizartzako helmuga zeharkatu zuen unean. E. MAIZ

taldia emanda irabazi zuen lasterketa. Trepela zatituta iritsi zen helmugara.

Otsabio kirol elkarteak antolatzen duen 104 kilometro luzerako

afizionatuen mailako lasterketan lau mendate igo beharra izan zituzten txirrindulariek: Altzo hiru aldiz, eta Leaburu.

23 taldek hartu dute parte aur-

tengo proban, 129 txirrindulari guztira, antolatzaileek aurreikusitakoa baino zertxobait gehiago.

Lehendakari Txapelketarako puntuagarria da Lizartzako lasterketa. Hain zuen ere, txapelketaren hirugarren proba da, eta Aitor Gonzalez dago sailkapeneko lehen postuan.

### Antolatzaileak, «oso gustura»

Antolatzaileen esanetan, «primeran» joan zen lasterketa, beraz, «oso gustura» daude. «Espano baino parte hartzaile gehiago izan dira, maila oso handia, eta eguraldia ere ona, beraz, proba borobila izan da», adierazi dute.

Datorren urtean 25 urte beteko ditu lasterketak, eta ordurako, zerbait berezia egin nahi dute: «Euskadiko Txapelketa antolatu nahi dugu; aukera hori izatea espero dugu, eta maila handiko ikuskizuma eskaini ahal izatea Lizartzan».

## Fernandezen Telefonica Team ontzia lehen postuan mantentzen da

Hirugarren postuan iritsi da ontzia Zeelanda Berriko helmugara; Brasileran bidean jarriko dira bosgarren etapan

**I. Terradillos** Ibarra

Herenegun gauerdian iritsi zen Aucklandera (Zeelanda Berria) Xabi Fernandez ibartarraren Telefonica Team ontzia. Sanyatik (Txina) Aucklanderako Volvo Ocean Raceko laugarren etapa hirugarren postuan amaitu zuen. Modu honetan, sailkapen orokorrean lehen postua mantentzen du.

Groupama frantziar ontzia da bigarren sailkatua, eta eurekiko 18 puntuko abantaila du Telefonica Team ontziak, eta laugarren sailkatua den zeelandaberritar Camper ontziarekiko, berriz, 23 puntuko. Ibartarraren ontziak orain arte jokoan izan diren 144 puntutatik 121 eskuratu ditu, hau da, %84.

Fernandezek lortutako emaitzarekin taldea «oso gustura» dagoela adierazi du. «Bigarrenen gertatu bezala, proba galdutzat ez ematea eta aukera egokia sortzeko zain egotea izan da giltza; ondo joan da, baina oso gogorra izan da», azaldu du.

Hurrengo proban, Brasil izango dute helmuga ontziek.

## Iglesias alegiarra bikain, Espainiako Autocross Txapelketan

Lehen postuan bukatu du hasi berri den proba; beste sei lasterketa izango dira, hurrengoa Lleidan

**I. Terradillos** Alegia

Espainiako Autocross Txapelketako lehen proba jokatu dute iragan asteburuan Aragoin. Bertan, car cross sailean, Alegiako Ibai Iglesias izan da irabazlea. 15 ibilgailu aritu ziren lehian, eta azkarrena Iglesiasen autoa izan zen.

Bigarren proba apirilaren 14 eta 15ean jokatu dute Lleidan. Sei probak osatuko dute Espainiako Txapelketa.





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. Telefonoa: 943 6736 49.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Agenda

### DEIALDIK

- **Villabona.** 778-824 Nafarroako Erresumaren sorrera hitzaldia gaur, 19:30ean Mintzolan, Beñi Agirireren eskutik.
- **Tolosa.** Pasa den astean atxilotutako Manu Azkarateren egoera aztertzeko batzarra egingo dute gaur, 20:00etan Triangulua plazan.
- **Ibarraldea.** Osoko bilkura egingo dute gaur, 19:30ean, udaltxeko pleno aretoan.
- **Zizurkil.** Udalak 2012ko aurrekontu egitasmoaren berri emateko batzar irekia egingo du gaur, 19:00etan udaletxean. Gaurko saioa euskaraz izango da, eta ostegunean, hilak 15, 19:30etik aurrera, elebitan egingo dute Atxulondo kultur etxean.
- **Anoeta.** Herriko festak antolatzeko bilera egingo dute gaur, 19:00etan udaletxean.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Gelede maskerakusketa Topic zentroan ekainaren 10a arte.
- **Alegia.** Nerea Ugarteren sormen lanak ikusi daitezke Jubila-tuen tabernan, martxoaren 19a bitarte.

# HITZAko epaimahaiak egin du bere lana eta orain irudirik politena aukeratzeko unea da

Balardi, Azurza eta Amonarriz dira Argazki Lehiaketako finalistak; osteguna bitarte eman daitezke botoa

**Rebeka Calvo**

Ostiralean bukatu zen Inauterietako Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea, eta orain irabazleak aukeratzeko txanda da. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko epaimahaiak aukeratu ditu jasotako argazki guztietatik hiru, eta orain zure txanda da, irakurle.

Lehen irudia Jon Balerdirena da. Astelenitan ateratu zuten Eguzkitza sagardotegian, eta argazkiarekin benetan gustura geratu zirela dio Balerdik.

Bigarren argazkia David Azurzarena da. *Venezia txikian* da argazkirako aukeratutako izenburua, eta ikusi daitezkeenez Zerkau-siko behe solairuan aterata dago.

Azken irudia Arantza Amonarrizek ateratakoa da. Samaniego ikastetxeko 5. mailako A gelako

neska batzuk ikusi daitezke bertan. «Gaztetxoak eta inauterizaleak. Harrobia ziurtatuta dago!», azaldu du Amonarrizek.

### Bozkatzeko moduak

Botoa ematerakoan irudi bakarra aukeratu behar da, eta 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta edo [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera idatzita eman daitezke.

Pertsona bakoitzak boto bakarra eman dezake, eta izen abizenak eman behar dira aukeratutako irudiaren egilearekin batera. Osteguna, hilak 15, da azken eguna.



Gotik behera, Jon Balerdiren, David Azurzaren eta Arantza Amonarrizren argazkiak. HITZA

## Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

AGURRAK  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)